ONDORENGO BATERAKUNTZA,

Lehen Baterakuntzako diferentziak aktiboei egotzi daitezkeenean

1. Filialak daukan eraikuntza baten kontabilitate balio garbia 15 unitateakoa da baina merkatuan 25 unitateko balioa estimatzen zaio.
d=1
Eraikuntza honi buruzko datuak hauek dira:
   - Kostu Historikoa=20
   - Hondar Balioa=ez dauka
   - Urteroko amortizazio kuota=%2

   Baterakuntzako Lehen datan M eta Fk aurkeztutako balantzea:

KONTUAK	M	F
Ondasun eta eskubideak	60	40
Inbertsioa	30	
AKTIBOA GUZTIRA	90	40
Kapitala	20	10
Erreserbak	20	10
Galdagarria	50	20
GUZTIRA PASIBOA	90	40

   Hurrengo urteko datuak hauek dira:
   - Filialaren kapital eta erreserbek berdin jarraitzen dute.
   - Filialaren G-I=10
   - Matrizearen G-I=15

   Egin baterakuntzako bigarren urtean lagungarriak liratekeen doikuntzak.

2- IRAR, S.A.k (Matrizea) ABSOR, S.A.ren (Filiala) akzioen %70a eskuratu zuen X6.12.31n. Egindako Inbertsioa 600.000 eurotakoa izan zen.

ABSOR, S.A.ren X6/12/31ko Egoera Balantzean datu hauek aurkezten dira (eurotan), besteak beste:

Aktibo Amortizagarria	60.000	Kapitala	500.000
Amortizazio Metatua	(35.000)	Erreserbak	300.000
		Galdu-Irabazia	0

Filialaren aktibo amortizagarri batean 10.000 euroko gainbalioak identifikatu dira eta 19X6. ekitaldia amortizatzen den 7. ekitaldia da

Eskatzen dena:

a) X6ko urteko kontu bateratuak aurkezteko idazpenak.

b) X7ko urteko kontu bateratuak aurkezteko idazpenak. X7n ABSOR, S.A.ren Netoa ondorengoa da:

Kapitala	500.000
Erreserbak	300.000
Galdu-Irabazia	100.000

c) X10 eta X15 ekitaldietan, aktibo amortizagarriarekin zerikusia daukaten idazpenak.

ONDORENGO BATERAKUNTZA
Filialaren Netoa ondorengo baterakuntzan ezberdina denean

F enpresaren akzioen %60a 20X8ko abenduaren 31n eskuratu zen lehenengo aldiz, eta une hartan egin zen lehenengo baterakuntza.

Inbertsioa Enpresa nagusiaren urteko kontuetan agertzen dena da, urte hauetan ez baita aldaketarik egon.

- Egon daitezkeen baterakuntza diferentziak ezin daitezke ez aktibo ez pasiboei egokitu.
- Filialaren Netoa X8/12/31n: Kapitala=80; Erreserbak=90; Galdu-Irabazia=35.

EGIN ITZAZU 20X10/12/31ko EKITALDIKO URTEKO KONTU BATERATUAK.

KONTUAK	MATRIZEA	FILIALA	AGREGAZIOA	ZORDUN	HARTZEKO	BATERATUA
Ibilgetu Materiala	830	360				
Finantza Inbertsioa	190					
Izakinak	200	60				
Zordunak	80	30				
Diruzaintza	50	10				
AKTIBOA GUZTIRA	**1.350**	**460**				
Kapitala	920	80				
Erreserbak	66	170				
Galdu-Irabazia	100	70				
Arrisku eta gastuetarako Hornidura	10	10				
E/Luz. Hartzekodunak	134	85				
E/Lab. Hartzekodunak	120	45				
OG eta PASIBOA GUZTIRA	**1.350**	**460**				

Integrazio Globalaren Metodoa

Tanzania S.A. sozietateak ondorengo enpresekin taldea osatzen du:

- *Congo S.A.:* 2006/01/01ean 1.500.000 eurogatik %80a eskuratu zuen. Enpresa honek, Asiako merkatuan oso ondo baloratzen den marka bat dauka (arrain izoztuak salerosteko) eta Tanzaniak 300.000€tan balioetsi du.
- *Vietnam, S.A.:* 2007/12/31n 2.000.000 eurogatik %90a eskuratu zuen. Enpresa honek daukan arrain-haztegia (piscifactoría), kontabilitatean 40.000 eurotan baloratuta egon arren, merkatuan 60.000€tan balioesten du Tanzaniak (taldean sartzen den unean) eta geratzen zaion bizitza erabilgarria 15 urtetan estimatzen da.

Informazio gehigarria:

	31/12/2006	31/12/2007	31/12/2008
Tanzania			
Kapitala	5.000.000 €	5.000.000 €	5.000.000 €
Erreserbak	1.800.000 €	2.000.000 €	2.100.000 €
Emaitza	260.000 €	300.000 €	400.000 €
Congo			
Kapitala	1.000.000 €	1.000.000 €	1.000.000 €
Erreserbak	200.000 €	350.000 €	400.000 €
Gehigarria	100.000 €		
Emaitza	90.000 €	100.000 €	120.000 €
Vietnam			
Kapitala	1.500.000 €	1.500.000 €	1.500.000 €
Erreserbak	500.000 €	600.000 €	800.000 €
Aurreko Ekit. Em. Neg.	90.000 €		
Emaitza	200.000 €	100.000 €	200.000 €

ESKATZEN DENA: *Egin itzazu beharrezkoak diren kalkulu eta idazpenak 2008ko Urteko Kontu Bateratuak osatzeko, beharrezkoak diren komentarioekin.*

Integrazio Globalaren Metodoa

ESTALPE, S.A. enpresaren jarduera loreen eta landareen salmenta da eta 2006/1/1ean BANATU, S.A enpresaren (loreak etxebebizitzetara zuzenean saltzen dituen enpresa) akzioen %70 erosi zuen 500.000€ ordainduz.

BANATU, S.A. enpresak "Banatuz" banaketa sare internazionala sortu zuen, loreak lau herrialde ezberdinetako etxebebizitzetan banatzen dituen sarea. ESTALPEk banaketa-sare honen marka 50.000€ baloratu zuen.

Halaber, BANATU, S.A.enpresaren ibilgetuen artean eraikuntza bat identifikatu da non bere arrazoizko balioa kontabilitate balioa baino 120.000 euro handiagoa den, eta eraikuntza honi lehen baterakuntzako datan geratzen zaion bizitza erabilgarria 16 urtekoa da.

Enpresa bakoitzaren ondare garbiari buruzko informazioa ondorengo taulan laburbiltzen da:

	ESTALPE 06-12-31	ESTALPE 09-12-31	BANATU 06-12-31	BANATU 09-12-31
Kapitala	1.5000000	1.5000000	425.000	425.000
Erreserbak	150.000	160.000	35.000	15.000
Gaineratikoa	1.000	5.000	-	1.500
Pasibo Galdagarria	75.000	80.000	375.000	325.000
Galdu Irabazia	4.500	-15.000	45.000	-65.000